

Kontrabandoan zoriona pasa

Maider Iantzi

Mugak aurkitzeak eta ikertzeak badu zerbait kitzikagarria eta beldurgarria. Izan ere, zeinen sakona eta iluna den irudizko marra! Gure barrenean bertan ditugu mugarri batzuk. Ez dakigu ongi nork eta noiz jarri zituen hor. Gure buruak? Bertzeek? Bizitu edo sufritu ditugun esperientziek? Gehien-gehienetan eurentaz atzentzen gara, eta hagitz-hagitz gutxitan –ematen duen poz eta indarrarekin sarriago izan beharko litzateke– bota egiten ditugu. Orduan bide berriak zabaltzen zaizkigu eta “zer ote dago bertze aldean?” galderari erantzuteko moduan izaten gara pixkanaka-pixkanaka.

Mugaldeko herriak bitxiak izan ohi dira, jende desberdinaren nahasketaz gain, denon imaginarioetan daudelako mendiak, ibaiak eta zeruak urratzen zituzten kontrabandisten istorioak. Errealak ala kontaketa bakoitzean haziz joandakoak diren, horrek zer axola dio.

Irudika dezakegu baserri zahar bat mugak alderik alde zeharkatzen duena. Alde batean, sukaldea, komuna, logela bat eta behitegia ditu; bertzean, sala, bi logela eta oilategia. «Alaba atzerrian bizi da», azal dezake beratar batek Ibardingo puntan. «A bai? Non?» itaundu eta «Urruñan» erantzunen digu. «*Pardon*, non gaude hemen, Frantzian ala Espainian?». Erantzunak ez

ditu maletategiak Ricard kaxaz eta tabakoz gainezka eramanen dituzten bezeroak aseko, baina sangria edalontziak bete eta bete dabilen zerbitzari gaztea harro geldituko da atera zaizkion hitzekin: «Euskal Herrian!».

Mugarritz mugarri paseatzen, garai batean marra ikusezin hauek gaindiezinak zirela konturatu gara, eta gaur egun oraindik beren zulo sakon eta ilunetan jendea irentsi eta akabatzen ari diren mugez oroitutua gara. Buru gaineratik pasatzen zaizkigun hegazti migrariei begira gaude, Edu Zelaietaren “Mugaldekoak” liburuko poema baten zati bat ezpainetan: «Kontrabandoan zoriona pasa eta mugalaria izan». •

Cristina Borboikoa eta Iñaki Urdangarinen birgizarteratzea

Xabier Mikel Errekondo

Iragan astean Cuatro telebista kate sensazionalistatik deitu zidaten Noos kasuaren epaiketa hastear dela-eta elkar-rrizketa bat egiteko. Harrigarria badirudi ere... etxera deitu zuten eta, nire alabaren erreflexu bizien ondorioz, bigarren hitza gurutzatu zutenerako telefonoa nire eskuetan nuen. Politika publikoaren erreflexuak dagoeneko herdoildurik izanagatik ere, zentzuaren zantzu ñimiñoenak bultzatuta ez nuela ezer komentatzekorik bota nien. Uff! Eskegi ondoren, ordea, penetan geratu nintzen... gustura errepikatuko nizkielakoan taberna giroko ohiko birao parrastadak. Baina, hori bai, ustelkeriaz zigortuak izanez gero aldarrikatzen nuela arren

bikotea ez dispertsatzeko eta ez urruntzeko. Baina, nago, Estatua jada tematuta egonen dela Cristina eta Iñakiren berehalako birgizarteratzearekin, eta beharrik izanez gero Ajuria Enetik eratorritako neurriarik ankerrenak ere aplikatzeko prest. Bekatari lapur borboitarren heziketa zintzoa ezaguna zaigu, aita nagusiak berriki erakutsi moduan: nahi duen guztia egin ondoren, haur-damuarekin barkazioa... Aldiz, Iñakirena? Jatorri eta izen barbarokoa, Sabino Aranaren odolekoa, kilokada harrotasunek lepoa luzatutakoa. Biek ala biek talde arriskutsua osatzen dute. Bonnie & Clyde Taldea.

Birgizarteratzearen espezialistek Erregearen arrebari damuaren entsegua

ehunka alditan errepikaraziko zioten dagoeneko, baina, halere, borboitarren artean ardi beltza bihurtzeko arrisku txikiena ere uxatzeko neurri guztiak abian jarriko dituzte. Ez dira fio. Espetxean elkarren hurbil edukiz gero, bikotekidearen atzaparretan legoke, bi aldiz preso... Noos auziaren ebazpena idatzita dago: «Zigorra- ren helburua birgizarteratzea izanik eta Cristina Borboikoaren heziketa zein aurrerariak aintzat hartuz bere erabakiak askatasunez har ditzan, espresuki debekatzeko da taldeko kideak espetxe berean egotea. Zehazki, Urdangarin jaunak zigorra Salto del Negro espetxean bete dezan gomendatzen da». •